

BEZEROEN SEGMENTAZIOA:

Bezero mota asko izango ditu zerbitzu honek, ez du adin zehatzik izango. Edonork erabil dezake baina pertsona talde batek garrantzia izango du. Talde hau 18-25 urteen artean dauden pertsonak osatzen dute.

Adin honetako partaideak oso ondo erabiltzen dituzte Internet inguruko gauzak. Hainbat arrazoiengatik ez dute denbora askorik erosketak egiteko, horregatik aukeratu dugu talde honetan zentratzea. Ideia denbora murriztean datza, beraz, pertsona hauei lana errazteko helburua izan dugu.

Aipatu bezala, bezero mota asko izango ditu. Mota hauen artean Interneta erabiltzen ez dakiten pertsonak barne daude, gehienetan pertsona nahiko helduak dira. Ideia basikoak jakinda, erabiltzeko gai izango da. Web orria horrela antolatuta egongo da pertsona guztiei zuzenduta egoteko.

